

URRUNEKO BANKA

Enpresen Online Banka



Segurtasun osoz, arintasunez eta erraztasunez egin ditzazun zure bankuko eragiketak

Enpresen Online Banka jarri dugu zure eskura, eragiketak erosotasun, segurtasun eta erraztasun osoz egin ditzazun, edozein ordengailutatik. Ezinbesteko erreminta izango duzu banku-jarduerarekin zerikusia duten eguneroko enpresa-gestioetarako. Azken finean, eguneko 24 orduetan zure zerbitzura izango duzun Laboral Kutxaren beste sukurtsal bat da. Zerbitzu osoa

- Eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan erabilgarri.
- Interneterako sarbidea duen edozein tokitatik erabil daiteke.
- Segurtasun osoz eta teknologiarik berrienak erabiliz beti.
- Kontsultak egiteko zerbitzua: 902 333 353 telefonoan, astelehenetik ostiralera 08:30etik 18:00etara.

Enpresen Online Bankan egin daitezkeen eragiketak

Online Bankak eragiketa ugari egiteko aukera ematen dizu, zure finantza-behar guztiei erantzuteko.

Kontsultei dagokienez, hamaika aukera eskaintzen dira: kontuen posizioak edo kontu bakoitzaren ezaugarriak ikustea, azken urteko mugimenduak, mugimenduei buruzko informazioa kontzeptuen arabera sailkatuta, mugimenduen bilatzailea, mugimenduak Excel formatura pasatzea, kreditu-txartelekin egindako kontsumoak, txartelekin egindako kontsumoen azterketa konparatiboa...

Bestalde, besteak beste, eragiketa hauek egiteko aukera ematen du: transferentziak, Espainiako Bankuaren bidez egunean egindako FMA transferentziak, kanporako ordainketak, dokumentu-kredituen eskariak, abal-eskariak, amortizazioak aurreratzea, fitxategiak kudeatzea, Laboral Kutxaren ordaindukoak kontratatzea, inbertsio-fondoak kudeatzea, efektuak esleitzea... Laburbilduta, enpresen eguneroko eragiketak egiteko aukera ematen du.

Ordainketak eta kobrantzak fitxategien bidez kudeatzea

Enpresen Online Bankan, ordainketak eta kobrantzak AEB araudiari lotutako fitxategien bidez egiteko tresnak aurkituko dituzu. Fitxategiak berariaz

prestatutako grabaketa-moduluetan sortzeko edo zure aplikazioetan aurretik sortutako fitxategiak transmititzeko aukera izango duzu.

- Ordainketak fitxategien bidez kudeatzea:

- hornitzaileei ordaintzea
- nominak ordaintzea
- transferentziak egitea

- Kobrantzak fitxategien bidez kudeatzea:

- helbideratutako zordunketak (ordainagiriak)
- kreditu-aurrerakinak
- merkataritza-efektuak

Hornitzaileei ordaintzea

Fitxategien bidez egindako ordainketak kudeatzeko, Hornitzaileei Ordaintzeko Sistema nabarmendu beharra dago. Hornitzaileei egin beharreko ordainketak jasotzen dituen fitxategia igortzen du enpresak, eta Laboral Kutxa arduratzen da horiek kudeatzeaz.

- Honela ordaintzen da:

- transferentzia bidez
- ordainketa ziurtatu bidez
- banku-txeke bidez

Online Bankan bitartez, hornitzaileei ordaintzeko aginduak kontsulta daitezke, eta hornitzaileek euren aldeko transferentziak aukeratu eta aurrera ditzakete.

- Bezeroarentzako abantailak:

- Ordainketa-departamentuan egiten diren administrazio-lanak desagerrarazten ditu.
- Ordainketa-aginduak enpresaren kontabilitate-sisteman sartzeko aukera ematen du.
- Bezeroekiko harremanak hobetzen ditu.
- Egindako ordainketak kontrolatzen eta segimendua egiten laguntzen du.

- Hornitzailearentzako abantailak:

- Finantzaketa beti eskuragarri dago, aurreratu nahi diren aginduak linean aukera daitezkeelako.
- Azkar eta segurtasunez kobratzeko aukera ematen du.
- Kobrantzen kudeaketaren ondoriozko administrazio-lanak murrizten ditu.

Online Banka zerbitzua zure sukurtsalean kontratatu behar duzu. Bertan emango dizkizute sarrera-gakoak.

Produktu horiei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, galdetu gure enpresentzako sukurtsaletan.

